# Akta

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea
EGUNA / FECHA: 21/02/2018
HASIERA / INICIO: 20:55
AMAIERA / FINAL: 21:00

BERTARATUAK / ASISTENTES:
ALKATEA/ALCALDE
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)
M.ª Ascensión Larrabaster Lezamiz (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL
Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera

Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Batzorde Informatzailea bildu zen ohiko saioa egiteko lehen deialdian. Ekitaldiaren fede eman zuen Udalbatzaren idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak.

Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion, aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatu zaien gai - zerrendaren arabera, eta akordio proposamen hauek egin ziren:

En el Ayuntamiento de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

**1.- Aurreko saioko akta.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez adostu zuen 2018ko otsailaren 7ko saioko akta onartzea.

**1.º.- Acta de la sesión anterior.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 7 de febrero de 2018.

**2.- San Antonioko hondartzako denboraldiko zerbitzuak.-**

Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 53. artikuluan eta urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuak onartzen duen Kostaldeei buruzko Araudi Orokorraren 113. artikuluan ezarritakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen baimena eskatzea 2018 denboraldian itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren gainean instalazioak ezartzeko, zehazki 70 m$^2$-ko establezimendua janariak eta/edo edariak saltzeko; A.-E. A. andreak proposamena egin zuen ahoz, eta idatziz berretsi beharko du eskaera. Batzordeak proposatu zuen, halaber, eskaerarik ez egitea uretako kiroletarako, aurreko urteetako emakidadunek interesik agertu ez baitute.

**2.º.- Servicios de temporada de la playa de San Antonio.-**

De conformidad con lo establecido en el artículo 53 de la Ley 22/1988, de 28 de julio, de Costas y en el artículo 113 del Reglamento General de Costas, aprobado por Real Decreto 876/2014, de 10 de octubre, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó solicitar autorización para instalaciones sobre el dominio público marítimo-terrestre durante la temporada 2018, en concreto para un establecimiento de 70 m$^2$ para la expedición de comidas y/o bebidas, conforme a la propuesta planteada verbalmente por A.-E. A. (que deberá ratificar por escrito su petición); no formulándose solicitud para actividades náutico-deportivas, al no haberse constatado la existencia de interés por parte de los concesionarios de años anteriores.

**3.- GMSM, Medio Ambiente, S.A.-ri espedientea irekitzea.-**

Jarraian, GMSM, Medio Ambiente, S.A. enpresak aurkezturiko idazkia irakurri zen. Enpresak adierazten du, Sukarrietako Udalaren jakinarazpenik jaso ez duenez, jarraituko duela kontratatuta duten zabor-bilketa zerbitzua ematen, eta ez diotela jaramonik egingo Udal honek egindako eskaerari; udalak eskaera egin zion San Antonioko enklabe ohiaren eremuan zerbitzua emateari uzteko, eremua Busturiko udal-mugarteari dagokiolako, eta Busturiko Udala eta bere enpresa esleipenduna zerbitzu hori ematen ari direlako.

Kontuan hartuta aldez aurreko administrazio-kontratua izateak ez diola eskumenik ematen Busturiko udal-mugarteari dagokion zerbitzua emateko, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez ondokoa erabaki zuen:

LEHENA.- Zehapen-espedientea irekitzea GMSM, Medio Ambiente, S.A. enpresaren aurka, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko

**3.º.- Apertura de expediente a GMSM, Medio Ambiente, S.A.-**

A continuación se dio lectura al escrito presentado por la empresa GMSM, Medio Ambiente, S.A., en el que manifiesta que, no habiendo recibido comunicación por parte del Ayuntamiento de Sukarrieta, va a seguir prestando el servicio de recogida de basura que tienen contratado, haciendo caso omiso al requerimiento formulado por este Ayuntamiento para que deje de hacerlo en la zona del antiguo enclave de San Antonio, por tratarse de territorio municipal de Busturia y ser prestado ese servicio por el Ayuntamiento de Busturia y su empresa adjudicataria.

Considerando que, la existencia de un contrato administrativo previo no le faculta a prestar un servicio de competencia municipal en este término de Busturia, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

PRIMERO.- Iniciar expediente sancionador contra la empresa GMSM, Medio Ambiente, S.A., de conformidad con

39/2015 Legearen 63. artikuluaren eta harekin bat datozen artikuluen arabera.
BIGARRENA.- Espedientearen instruktore Aitor Aretxaga Telletxea jauna izendatzea eta idazkari, Víctor-Martín Amparan Álvarez jauna, errekusatze-araubidea Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritako bera izanik.

lo dispuesto en los artículos 63 y concordantes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
SEGUNDO.- Nombrar Instructor del expediente a D. Aitor Aretxaga Telletxea y Secretario a D. Víctor-Martín Amparan Álvarez, siendo el régimen de recusación de los mismos el previsto en los artículos 23 y 24 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

**4.- Ondare Erantzukizuneko Akzioa.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren aurka ondare-erantzukizuneko akzioa egitea Udal honi San Antonioko enklabea ezabatzeko espedientearen ebazpenean eragindako kalte-ondorioengatik eta ezohiko funtzionamenduagatik; espedientea *ex lege* hasi zen, 8/1993 Foru Arauaren amaierako bigarren xedapenaren bidez, eta 2017ko otsailaren 28ko foru-erabakiaren bidez amaitu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2016ko azaroaren 23ko autoa eman ondoren, 316/13 Epaiaren betearazpenean, Auzitegi Gorenaren 2015eko ekainaren 30eko Epaiaren bidez berretsia.
Eskaturiko kalte-ordain horiek ondoko zenbatekoei dagozkie: Bizilan S.L. enpresak lortu gabeko irabazi dagokionez igorritako txostenean jasotakoak (1.026.179,00 €) eta Udal Idazkariak sortutako kalteei dagokienez egindako ziurtagirian jasotakoak (158.775,13 €).

**4.º.- Acción de Responsabilidad Patrimonial.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó formular ante la Diputación Foral de Bizkaia, una acción de responsabilidad patrimonial por los daños y perjuicios ocasionados a este Ayuntamiento por la demora y su anormal funcionamiento en la resolución del expediente de supresión del enclave de San Antonio, iniciado *ex lege*, con la disposición final segunda de la Norma Foral 8/1993, y finalizado por acuerdo foral de 28 de febrero de 2017, tras el Auto del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco de 23 de noviembre de 2016, en ejecución forzosa de la Sentencia 316/13, confirmada por el Tribunal Supremo mediante Sentencia de 30 de junio de 2015.
Estos daños y perjuicios se concretan en las cantidades fijadas en un informe emitido por Bizilan S.L. respecto del lucro cesante (que asciende a un importe de 1.026.179,00 €) y en el certificado del Secretario Municipal respecto del daño emergente (158.775,13 €).

**5.- 2017 ekitaldiko Udal Aurrekontuaren likidazioa eta aurrekontuzko egonkortasun helburua betetzeari buruzko txostena.-**

Kontuan hartuta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 46. artikuluak ezartzen duela ekitaldi bakoitzeko aurrekontua eskubideen bilketari eta betebeharren ordainketari dagokienez dagokion urte naturaleko abenduak 31 baino lehen likidatuko dela. Kontuan hartuta 10/2003 Foru Arauaren 5. eta 6. atalek ezartzen dutela diruzaintzako soberakina funts likidoek gehi kobratzeko dauden eskubideek ken ordaintzeko dauden betebeharrek osatuko dutela, guztiak ekitaldiko abenduaren 31ri dagokionez, eta bertatik kobratzeko zailtzat edo ezinezkotzat jotzen diren kobratzeko dauden eskubideak kenduko direla. Kontuan hartuta Aurrekontuaren likidazioa datorren ekitaldiko martxoak 31 baino lehen osatuko dela, onarpena Alkatetzari dagokiola, udal Idazkaritza Kontuhartzailearen aurretiko txostena jasota, Udalbatzari jakinaraziko zaiola (10/2003 Foru Arauaren 49.3. art.).

**5.º.- Liquidación del Presupuesto municipal del ejercicio 2017 e informe sobre el cumplimiento del objetivo de estabilidad presupuestaria.-**

Considerando que el artículo 46 de la Norma Foral 10/2003, de 2 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia, establece que el Presupuesto de cada ejercicio se liquidará en cuanto a la recaudación de derechos y al pago de obligaciones el 31 de diciembre del año natural correspondiente; considerando que los apartados 5 y 6 del artículo 48 de la Norma Foral 10/2003 establece que el remanente de tesorería estará integrado por los fondos líquidos, más los derechos pendientes de cobro y menos las obligaciones pendientes de pago, todos ellos referidos al 31 de diciembre del ejercicio y que de él se deducirán los derechos pendientes de cobro que se consideren de difícil o imposible realización; considerando que la liquidación del presupuesto se confeccionará antes del día 31 de marzo del ejercicio siguiente, correspondiendo su aprobación a la Alcaldía, pre-

Kontuan hartuta 10/2003 Foru Arauaren 59.5. artikuluak ezartzen duela aurrekontuen likidazioaren kopia Foru Aldundiari bidali behar zaiola, onartu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik, honek eskumena duten administrazioei bidaltzeko ardura izango duelarik. Kontuan hartuta 3.1. artikuluak, Aurrekontuzko Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 2.1.c) artikuluarekin bat etorrita, ezartzen duela Aurrekontuen eta Toki Erakundeen gastuei edo diru-sarrerei eragiten dieten gainerako jarduketen lanketa, onarpena eta exekuzioa aurrekontuzko egonkortasunaren baitan egongo direla, Europako araudiarekin bat etorrita, aurrekontuzko egonkortasuntzat egiturazko oreka edo superabita jota, eta lege beraren 4. artikuluak eransten duela Herri Administrazioen jarduketak ere finantza iraunkortasunaren printzipioaren mende egongo direla, eta hori izango dela uneko eta etorkizuneko gastuetarako konpromisoak defizit eta zor publikoaren mugen barruan finantzatzeko gaitasuna, Lege honetan eta Europako araudian ezarritakoaren arabera. Kontuan hartuta Aurrekontuzko Egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 1872001 Legearen garapen araudia onartzen duen azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuaren 16. artikuluak, toki erakundeei aplikatuta, ezartzen duela udal Kontu-hartzaileetzak Udalbatzari Toki Erakundearen berearen eta bere mendeko Organismo eta Erakundeen egonkortasun helburuaren betetzearen inguruko txosten bat bidaliko diola. Txostenak izaera independentea izango du eta Toki Ogasunen Lege Arautzailearen testu betegina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 191.3. artikuluan aurreikusitakoei erantsiko zaie.

Ikusita udal Idazkaritza Kontu-hartzailetzak Udal Aurrekontuaren likidazioari eta aurrekontuzko egonkortasun helburuaren betetzeari buruz emandako txostena, Batzordeak aho batez proposatu zuen:

LEHENA.- 2016 ekitaldiko udal Aurrekontuaren likidazioa onartzea, txostenean jaso bezala eta Idazkaritza Nagusiaren eta udal Kontu-hartzailetzaren txostenetan adierazitakoaren arabera, honako emaitzarekin:

vio informe de la Secretaría-Intervención municipal, dándose cuenta al pleno de la Corporación (art. 49.3 de la Norma Foral 10/2003); considerando que el artículo 49.5 de la Norma Foral 10/2003 determina la obligación de enviar copia de la liquidación de sus presupuestos a la Diputación Foral, antes de finalizar el mes siguiente a su aprobación, siendo ésta la encargada de enviarla a las administraciones competentes; considerando que el artículo 3.1 en concordancia con el artículo 2.1.c) de la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, establece que la elaboración, aprobación y ejecución de los Presupuestos y demás actuaciones que afecten a los gastos o ingresos de las Entidades Locales se realizará en un marco de estabilidad presupuestaria, coherente con la normativa europea, entendiendo la estabilidad presupuestaria como la situación de equilibrio o superávit estructural y que el artículo 4 de la misma Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, añade que las actuaciones de las Administraciones Públicas también estarán sujetas al principio de sostenibilidad financiera, entendiendo como tal la capacidad para financiar compromisos de gasto presentes y futuros dentro de los límites de déficit y deuda pública, conforme a lo establecido en esta Ley y en la normativa europea; considerando que el artículo 16 del Real Decreto 1463/2007, de 2 de noviembre, por el que se aprueba el reglamento de desarrollo de la Ley 18/2001, de 12 de diciembre, de Estabilidad Presupuestaria, en su aplicación a las entidades locales, que la Intervención municipal elevará al Pleno un informe sobre el cumplimiento del objetivo de estabilidad de la propia Entidad Local y de sus Organismos y Entidades dependientes. El informe se emitirá con carácter independiente y se incorporará a los previstos en el artículo 191.3 del Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales.

Visto el informe emitido por la Secretaría-Intervención municipal sobre la liquidación del Presupuesto Municipal y sobre el cumplimiento del objetivo de estabilidad presupuestaria, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

PRIMERO.- Aprobar la liquidación del Presupuesto municipal del ejercicio 2017 en los términos que constan en el expediente y de conformidad con lo expuesto en los informes de la Secretaría General y de la Intervención municipal con el siguiente resultado:

**A) AURREKONTUZKO EMAITZA: / A) RESULTADO PRESUPUESTARIO:**

Onarturiko eskubide garbiak / Derechos reconocidos netos .......... 1.507.634,97 €
Onarturiko betebehar garbiak / Obligaciones reconocidas netas .......... 1.437.553,73 €
Itxitako ekitaldietako diru-sarrerak eta etekinak / Ingresos y beneficios ejercicios cerrados .......... 5.164,61 €

Itxitako ekitaldietako baliogabeturiko eskubideak / Derechos anulados de ejercicios cerrados ....................... 31.897,50 €
Aurrekontuzko emaitza / Resultado presupuestario .......................................................................................... 43.348,35 €
Finantzaketa desbideratze positiboak / Desviaciones positivas de financiación .......................................................... 0,00 €
Finantzaketa desbideratze negatiboak / Desviaciones negativas de financiación.......................................................... 0,00 €
Diru zaintzako Gainerako Likidoaren finantzatutako gastuak /
Gastos financiados con Remanente Líquido de Tesorería ........................................................................................ 0,00 €
Aurrekontuzko emaitza doitua / Resultado presupuestario ajustado .................................................................. 43.348,35 €

**B) DIRUZAINTZAKO SOBERAKINA / B) REMANENTE DE TESORERÍA:**

a) Kobratzeko dauden zordunak / a) Deudores pendientes de cobro ................................................................ 138.826,99 €
Diru-sarreren Aurrekontukoa, Arrunta / De Presupuesto de Ingresos, Corriente ............................................ 27.909,55 €
Diru-sarreren Aurrekontukoa, Itxiak / De Presupuesto de Ingresos, Cerrados ............................................. 101.034,25 €
Aurrekontutik kanpoko beste Eragiketa batzuetakoak / De Otras Operaciones No Presupuestarias ................ 9.883,19 €
b) Ordaintzeko dauden Hartzekodunak / b) Acreedores Pendientes de Pago .................................................. 165.558,15 €
Gastuen Aurrekontukoa, Arrunta / De Presupuesto de Gastos, Corriente ...................................................... 89.859,64 €
Gastuen Aurrekontukoa, Itxiak / De Presupuesto de Gastos, Cerrados ............................................................ 7.142,98 €
Diru-sarreren Aurrekontukoa / De Presupuesto de Ingresos ............................................................................... 0,00 €
Aurrekontutik kanpoko beste Eragiketa batzuetakoak / De Otras Operaciones No Presupuestarias .............. 68.555,53 €
c) Diruzaintzako Funts Likidoak / c) Fondos Líquidos de Tesorería ................................................................ 289.579,30 €
d) Diruzaintzako Soberakin Likidoa (a-b+c) / d) Remanente Líquido de Tesorería (a–b+c) ............................... 262.848,14 €
e) Ukituriko finantzaketa duten gastuetarako soberakina /e) Remanente para gastos
con financiación afectada ....................................................................................................................................... 0,00 €
f) Zalantzazko kobratze saldoak / f) Saldos de dudoso cobro ............................................................................. 84.391,21 €
g) Gastu Orokorretarako soberakina (d-e) / g) Remanente para Gastos Generales (d–e-f) ............................... 178.456,93 €

BIGARRENA.- Likidazioaren kopia bidaltzea Bizkaiko Foru Aldundiari.

SEGUNDO.- Remitir copia de la liquidación a la Diputación Foral de Bizkaia.

**6.- Udal-azpiegituretarako diru-laguntza.-**

Tokiko Gobernu Batzordeari jakinarazi zitzaion BFAren urtarrilaren 30eko 6/2018 Foru Dekretua argitaratu dela, zaienak udal-eskumeneko erabilera edo zerbitzu publikoei lotutako azpiegituretarako inbertsioak sustatzeko xedea duten eta Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailak 2018an ematen dituen diru-laguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak onesten dituen.

Udalbatza honek aurreikusita dituen lanei dagokienez dauden aukerak aztertuta, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen diru-laguntza eskatzea Mape ibaiaren eta Zelaiondo ZEUren arteko eremua urbanizatu eta hobetzeko jarduketak biltzen dituen proiektu baterako; eremu horretan San Kristobaleko Baselizaren eta egungo auzoko plazaren ondokoa.

**6.º.- Subvención Infraestructuras municipales.-**

La Junta de Gobierno Local fue informada de la publicación del Decreto Foral 6/2018, de 30 de enero, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones que se concedan el 2018 por el Departamento Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, que tiene por finalidad el fomento de inversiones destinadas a infraestructuras afectas a usos o servicios públicos de competencia municipal.

Tras analizar las distintas alternativas existentes en cuanto a obras previstas por esta Corporación, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó solicitar subvención para un proyecto que englobe las actuaciones de urbanización y mejora del área comprendida entre el río Mape y la UED Zelaiondo, incluyendo el área cercana a la Ermita de San Cristóbal y la plaza actual del barrio.

**7.- Hitzarmena Labayru Fundazioarekin.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Labayru Fundazioarekin sinatu beharreko hitzarmena onartzea, “Ondarea, emakumearen herentzia” gaiari buruzko bideoa egin dezan. Bideoak 30 minutuko iraupena izango du, eta bere

**7.º.- Convenio con la Fundación Labayru.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el convenio con la Fundación Labayru para la elaboración de un video que tratará sobre el tema “Patrimonio, herencia de la mujer”, con una duración de 30 minutos y

kostua 4.500 €-koa izango da (BEZ kanpo); zenbateko hori Busturiko Udalak ordainduko du.

un costo de 4.500 € (IVA no incluido) que serán aportados por el Ayuntamiento de Busturia.

**8.- Telmo Pires Aliste y otros C.B. enpresaren alegazioak.-**

Udaletxe honetan J. M. U. L.ren izenean zura ateratzeko izapideturiko espedienteari dagokionez, Telmo Pires Aliste y otros C.B. enpresak aurkezturiko idazkia irakurri zen. Enpresak ondokoa adierazten du: eskaera aurkeztu dutela, zeinaren bidez jakinarazten duen eskatu zaion lanak amaitu dituela eta eskatzen duen aurkezturiko bermea itzul dakion edo baliogabetu dadin; lau hil baino gehiago igaro direla ebazpenik eman gabe bermea baliogabetu dadin edo itzul dakion; eta, Udalarekin telefonoz harremanetan jarri ondoren, jakinarazi zaiela bermea itzuliko baso-mozketako hondakinak paketatu eta kentzen dituzten arte. Egoera horren aurrean, enpresak adierazten du kontratatua izan dela zura ateratzeko, ez hondakinak paketatu eta garraiatzeko, beraz, eskatutako lanak amaitu direla; eta aurkezturiko bermea, bertan jasota dagoen bezala, eskatu zaizkion eta burutu dituen zura ateratzeko lanak direla-eta, erabilitako bide eta pistetan (kasu honetan Goiherriko bidean) eragin litezkeen kalte-galerei aurre egiteko dela, ez kontratatua izan ez den lanak direla-eta eragindakoei aurre egiteko.

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Telmo Pires Aliste y otros C.B. enpresaren eskaera ez onartzea, ondoko arrazoiak direla-eta:

1.- Ez da egia bermea baliogabetu dadin egindako eskaera aurkeztu eta Udalak erantzun arteko epeari dagokionez esaten dena; izan ere, eskaera 2017ko irailaren 27an aurkeztu zen, eta Udalak urriaren 4ko Tokiko Gobernu Batzordearen erabakiaren bidez erantzun zion (azaroaren 3an jakinarazita).

2.- Erabaki horretan jasota geratu zen ezin zela bermea baliogabetu, lanak amaituta ez zeudelako eta udal-bideak behar bezala ez zeudelako.

3.-Ez da Udalaren ardura zeintzuk diren U. jaunak Telmo Pires Aliste y otros C.B. enpresari kontrataturiko lanak.

**8.º.- Alegaciones de Telmo Pires Aliste y otros C.B.-**

En relación al expediente de saca de madera tramitado en este Ayuntamiento a nombre de J. M. U. L., se dio lectura al escrito presentado por Telmo Pires Aliste y otros C.B. manifestando que han presentado una instancia comunicando la finalización de los trabajos que le han sido encomendados y solicitando la devolución o cancelación del aval presentado; que han transcurrido más de cuatro meses sin que se haya procedido a dictar resolución declarando cancelado el aval o procediendo a su devolución y que puestos en contacto con el Ayuntamiento, telefónicamente les han informado que no procedían a su devolución hasta que no se procediera al enfardado y retirada de los restos de la tala del monte. Ante esta situación, manifiesta que a esa empresa únicamente se le ha contratado para la saca de la madera, no el enfardado de los restos y su transporte, por lo que los trabajos encomendados a la empresa han finalizado y que el aval presentado, tal y como consta en el mismo, garantiza la obligación de responder de los daños causados en los caminos y pistas utilizados, en este caso, el camino de Goiherri, con ocasión de los trabajos de saca de madera que le han sido encomendados y que ha llevado a cabo, no de aquellos otros para los que no ha sido contratado.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó rechazar la solicitud de Telmo Pires Aliste y otros C.B., por los siguientes motivos:

1.- Que no es cierto lo que se afirma respecto del plazo transcurrido desde la solicitud de cancelación del aval y del silencio de este Ayuntamiento, ya que ésta se produjo el 27 de septiembre de 2017 y fue respondida por el Ayuntamiento mediante acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 4 de octubre (notificado el 3 de noviembre).

2.- En ese acuerdo se hacía constar que no se podía proceder a la cancelación, ya que no estaban finalizados los trabajos forestales y los caminos municipales no se encontraban en las debidas condiciones.

3.- Que al Ayuntamiento no le incumbe cuáles hayan sido los trabajos contratados por el Sr. U. a la empresa Telmo Pires Aliste y otros C.B.

**9.- Altamira-Tribis bidearen egoerari buruzko txostena.-**

Jarraian, Ingeniería Izarvi enpresak Altamira-Tribis bidearen egoerari buruz igorritako txostena irakurri zen. Txostenak agerian uzten du urtarrileko euri bortitzek lur-jausia eragin zutela Altamira eta Tibis auzoak lotzen dituen bidea dagoen

**9.º.- Informe sobre el estado del camino Altamira-Tribis.-**

A continuación se dio lectura al informe emitido por la Ingeniería Izarvi respecto del estado en que se encuentra el Camino Altamira-Tribis. En él se pone de manifiesto que las fuertes precipitaciones acaecidas durante el mes de

betelanean, Busturiko EUAtik 300 metro inguru gorago, eta horrek bidearen 15 metrori eragiten diola, eta bere egoera ezegonkorra denez, gomendatzen dute autoak aldaparen ertzetik ahalik eta urrutien igaro daitezela. Proposatzen da, halaber, ondoko neurriak har daitezela:
1.- Eragindako eremua seinaleztatzea lurrean finkatutako konoak, segurtasun-hesiak, seinale bertikalak eta abar jarrita. Seinaleztatutako eremuak ez luke 25 m baino motzagoa izan behar; lur-jausiak eragindako hamabost (15) gehi 10 m alde bakoitzetik, trafikoa eragindako ertzetik aldentzeko.
2.- Errodatze-zerrenda mugatzea, ibilgailuak igarotzeko, hiru metrora, ebakitako baso-eremu ondoan.
3.- Ibilgailu astunak, kamioiak alegia, igarotzea debekatzea edo mugatzea.
4.- Abiadura mugatzea hamar kilometro ordura.
Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen aipatu neurriak onartzea.

enero han provocado un desprendimiento de tierras en el relleno sobre el que se asienta el vial que une los barrios de Altamira con Tribis, unos 300 m. más arriba de la E.T.A.P. de Busturia y que ese corrimiento de tierras afecta, en una longitud de quince (15) metros, al vial que ha quedado en una situación de inestabilidad, aconsejando que los vehículos discurran lo más alejados posible del borde del terraplén. También se propone la adopción de las siguientes medidas:
1.- Señalizar la zona afectada mediante la disposición deconos fijados al terreno, barreras de seguridad, señales verticales, etc. La longitud de esta señalización, conos o barreras, no debiera ser menor de 25 m., quince (15) del desprendimiento más 10 m. a cada lado para separar el tráfico del borde afectado.
2.- Limitar la franja de rodadura, para el paso de vehículos, a tres metros junto a la zona de desmonte.
3.- Restringir, prohibir, el paso de vehículos pesados, camiones.
4.- Limitar la velocidad a diez kilómetros por hora.
La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó adoptar las medidas propuestas.

**10.- I. A. C.ren idazkia, zaldi-ibilaldiei buruzkoa.-**

I. A. C.k San Kristobalen inguruan zaldi-ibilaldiak egiteko aurkezturiko jarduera-baimenari dagokionez, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen jarduera baimentzea, baldintza izanik zaldien gorozkiak garbitzeko neurriak muturreraino eramatea, eta animaliak BI-2235 eskualde-errepidetik ez igarotzea, ezta gurutzatzea ere.

**10.º.- Escrito de I. A. C., sobre paseos a caballo.-**

En relación a la petición de autorización de actividad de paseos a caballo en el entorno de San Cristóbal, formulada por I. A. C., la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó autorizar la actividad, con la condición de que se extremen las medidas para la limpieza de las heces de los equinos y de que los animales no circulen ni atraviesen por la carretera comarcal BI-2235.

**11.- Hydroforest, S.L.-ren txostena.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen onartzea Hydroforest, S.L. enpresak igorritako txostena, Aingerubideko hariztian dagoen tamaina handiko eukaliptoa mozteari eta ipurditik ebakitzeari buruzkoa (txostenean zein egoeratan zegoen deskribatzen da, eta horrek justifikatu zuen lanak egiteko modua aldatzea); izan ere, horrek eragin du lanen kostua hasierako aurrekontua baino 955 € gehiagokoa izatea, gehi BEZ.

Eta, besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate jaunak eta egiaztatzen dudan Idazkariak sinatuta.

**11.º.- Informe de Hydroforest, S.L.-**

La Comisión, por unanimidad, acordó aceptar las conclusiones del informe emitido por la empresa Hydroforest, S.L., en relación a la tala y apeo del eucalipto de gran tamaño situado en el robledal de Aingerubide (en el que se describe el estado en el que se encontraba, y que justificó modificar la forma de realizar los trabajos), y que ha provocado que el costo de los trabajos exceda en 955 € más I.V.A. a los inicialmente presupuestados.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Alkatea/El Alcalde,

Idazkaria/El Secretario,

Izp./Fdo.: Aitor Aretxaga Telletxea

Iz./Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez